

Ametsetatik herrira

Nola amesten dute
Amorebieta-Etxanoko herritarrek
udalerriaren etorkizuna*?

*

1.245

inkesta osatu dira

Entzute prozesu berritzaile
baten ondoren, Udalak
herritarrekin partekatu nahi
ditu **kolektiboki eta**
elkarlanean irudikatutako
Amorebieta-Etxanori forma
ematen dioten ikuspegi, nahi
eta proiektu nagusiak.

219

parte-hartzaile
herritarren mahaietan

67

enpresa eta
elkarte inplikatura

Amorebieta-Etxanoko eraztun berdea

Natura aktiboa, mugikortasun konektatua eta berdeguneak

Amorebieta-Etxanoko etorkizun berdea **udalerria bertako paisaiarekin berriz lotzetik** hasten da. Amorebieta-Etxano **naturalagoa, osasungarriagoa eta erronka klimatikoetarako prestatuagoa**, non ura, landaredia, mugikortasun aktiboa eta topaguneak hiri-ikuspegi beraren parte diren.

Eraztun berdeak **parkeak, ibaiertzak, ibilbideak eta gutxiegi erabilitako espazioak sare bizi eta birnaturalizatu bihurtzea proposatzen du**, uholdeetatik babesten duten lekuak, biodibertsitatea hobetzen dutenak, auzoak lotzen dituztenak, joan-etorri iraunkorrak errazten dituztenak eta adin guztientzako ongizate-espazio berriak eskaintzen dituztenak.



Erreferentziatzko proiektua → Grønningen-Bispeparken Climate Park (Kopenhage)

Eremu uholdegarriak espazio publiko aktibo eta erresiliente bihurtuz

Amorebieta-Etxano Ibaizabal ibaiarekin eta ura duten guneekin bizi da. Erronka da eremu horiek arazo gisa ulertzeari uztea eta **espazio publiko erresiliente, naturalizatu eta etorkizuneko klimarako prestatuak** sortzeko aukera gisa ikusten hastea.

Urpean gera daitezkeen eremuak, belardi lauak edo ibaiaren ondoko zerrondak, biozanga, hiri-hezegune eta funtzio anitzeko berdegune bihurtzeak aukera emango luke **euri-ura hobeto kudeatzeko, arriskuak murrizteko, biodibertsitatea berreskuratzeko eta beste alde batetik, paseatzeko, atseden hartzeko, jolasteko edo ikasteko leku seguruak** sortzeko.

Komunitatea zaindu eta aktibatzen duten berdegune inklusiboak sortuz

Amorebieta-Etxanoko etorkizun berdeak **pertsona guztientzako pentsatutako espazio publikoak** diseinatzea ere eskatzen du. Lorategi terapeutikoez, ibilbide irisgarriek, itzalguneez, eremu multisentsorialekin eta egokitutako espazio lasaiek eguneroko **ongizateko, bizikidetzako eta gizarte-kohesioko leku bihur ditzakete** egungo parkeak.

Kiroldegia, anbulatorioa, egoitzak, ikastetxeak edo komunitate-espazioak bezalako ekipamenduekin batera, lorategi horiek **ingurune atseginak eskain ditzakete** **haurrentzat, adinekoentzat, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta ingurune naturalarekin konektatuta sentitzeko leku bat** bilatzen duen edozein bizilagunentzat.



Erreferentziatzko proiektua → Sesevete-ko lorategi terapeutikoa (Zagreb, Kroazia)

Hiria birnaturalizatzeko eta komunitatea aktibatzeko mikrobaso urbanoak

Amorebieta-Etxanoko basoa proiektuak natura berdegune handietan ez ezik, etxetik, eskolatik, bidegorritik edo auzotik gertu ere egongo den udalerrira irudikatzen du. **Hiri-mikrobasoen sare batek** aukera emango luke hondakin-partzelak, azpiegituren ertzak, industria-eremuak edo gutxiegi erabilitako espazioak birnaturalizatzeko, **biodibertsitate-babesleku txiki bihurtuz**.

Mikrobaso horiek **ikasgela natural gisa funtziona dezakete ikastetxeekin batera, herritarrek parte hartzeko gune gisa eta birika berde berri gisa, udalerrian banatuta**. Landatzeak eta zaintzeak, auzokoekin, elkarteekin eta hezkuntza-komunitatearekin batera, lurraldearekiko eta bertan bizi diren espezieekiko lotura sendotzen lagunduko luke.



Erreferentziatzko proiektua → Tiny Forest (Zaanstad, Herbehereak)

Parkeak eta landaredia dira Amorebieta-Etxanoko biztanleen hiru lehentasunetako bat*

*2025eko azarotik 2026ko otsailera bitartean egindako "Ametsetatik herrira" inkestan jasotako datuen arabera.

Amorebieta-Etxano ingurunearekin lotzen duten bizikleta-pista irisgarri eta seguruak

Amorebieta-Etxanoko bizikleta-pistak martxan daude jada, eta eraztun berda gauzatzeko funtsezko pieza dira: **mugikortasun aktiboko sare bat, inguruko espazio naturalak eta udalerriak modu eroso, seguru eta irisgarrian lotzen dituenak**.

Bizikleta-pista seguruak, jarraituak eta paisaian ondo integratuak bultzatzeak esan nahi du **Amorebieta-Etxano osasungarriago baterantz aurrera egitea, autoaren mendekotasun txikiagoa eta ingurune naturalarekin hobeto konektatuta dagoena**.




Horretan ari gara!

Herritarren bizikidetzan oinarritutako hirigintza

Hiriko bizitza eta tokiko merkataritza suspertzen duten espazio publikoak

Amorebieta-Etxanoko hiri-etorkizunerako ezinbestekoa da **bertako hirigintza-paisaia eta espazio publikoak leku atseginagoetara, irisgarriagoetara eta zornotzarren bizitzarekin eta eguneroko beharrekin konektatutakoetara proiektatzea**. Oinez ibiltzeak, espazio publikoa hobetzeak eta tokiko merkataritza aktibatzeak hirigunea paseatzeko, topatzeko, lan egiteko eta goatzeko ingurune bihur dezakete, esperientzia beraren parte.



Amorebieta-Etxanoko herritarrek eraldaketa hurbila, bizkorra eta ezagutzeko erraza amesten dute, **lehendik dagoena aktibatuz**. Kaleak, plazak, dendak, ekipamenduak eta lokalak jarduera sortzeko, talentua erakartzeko eta udalerrriaren harrotasuna indartzeko sare bihur daitezke. **Zornotzarra naiz eta harro nago!**

Arima eta nortasuna duten espazio publikoak sortuz: jolas-leku gisa oso ezagunak

Amorebieta-Etxano **ausarta da, eta bisitariengan gogoangarritasunik sortzen ez duen eta/edo herritartasun-sentimendurik sortzen ez duen identitate anodinotik ihes egiten du**. Aztertutako erreferentzia-proiektuek nortasunaren ezaugarri hori bera azpimarratzen dute, **espazio publikoak izaeraz sortzea dute helburu, erakargarritasun estetiko bereizgarriaren aldeko apustua eginez**, baina lehendik dagoenari egokituz.

Hiri-diseinuaren bidez – kolorea, zoladurak, landaredia, altzari bereziak, jolasguneak, argiztapena eta elementu grafikoak –, **dauden plazak eta parkeak birpentsatu ditzakegu, identitatez eta elkarrekin bizitzeko gune berri gisa funtziona dezaten**. Gune horiek gai izan litezke **gazteengan pertenezia sentimendua pizteko, aktibitatea erakartzeko eta Amorebieta-Etxanok berezko nortasuna duen udalerrri berritzaile gisa duen irudia indartzeko**.

Etokizuneko proiektua

Trenaren ibilbidea lurperatuz Amorebieta-Etxanon

Trenbidea lurperatzea da oraindik ere herritarrek eta Amorebieta-Etxanoko gobernu-taldeak gehien amesten duten proposamenetako bat. Proiektu anbiziotsu horrek, bere konplexutasunagatik eta aurrekontu handiagatik, **erakundeen arteko lankidetzak eskatzen du, Amorebieta-Etxanoren etorkizunean errealitate bihur dadin**.



Udal lokal hutsak esleitzeko ekimena, tokiko ekintzailatza testatu eta bultzatzeko

Hutsik dauden lokalak aktibatzea tokiko merkataritza indartzeko, beheko solairuei bizia emateko eta ekintzailatza-aukera berriak errazteko tresna bihur daiteke. Gainera, esperimentazio komertzialeko lokalen sare bat martxan jartzea proposatzen da, **gazte ekintzaileek ideia komertzialak probatzeko, zerbitzuak testatzeko eta negozio-eredu berriak garatzeko aukera izan dezaten**. Ikuspegi horrek **sarrera-oztopoak murriztea ahalbidetzen du, aldi baterako esleipenen, alokairu eskuragarrien, udal-laguntzaren eta ikusizko nortasun komun baten bidez, udalerriko kaleetan aitzindaria den ekimen hau ezagutarazteko**.

Tokiko talentuak elkarrekin lan egiten duten hiri-nodoak eratuz, lankidetzak eta aukera berriak modu organikoan sor daitezzen

Amorebieta-Etxanok **coworking-guneak sor ditzake, gazteei, profesionalei, autonomoei eta ekimen txikiei Amorebieta-Etxanon bertan eta Amorebieta-Etxanotik proiektu komunak garatzeko aukera emango diena**. Are gehiago, **tokiko enpresa-ehunaren, herritarren eta gazte-talentuaren artean sinergiak sortzeko aukera izango litzateke**. Espazio horiek talentua gordetzen, lankidetzak berriak sustatzen eta Amorebieta-Etxano indartzen lagun dezakete, **bertan garatzeko, sortzeko, lan egiteko eta hazteko leku gisa**.

Amorebieta-Etxanok **talentua geratzeko, konektatzeko eta hazteko lekua izan nahi du**

Zornotzako herritarren arabera, tokiko merkataritza indartzeko ezinbestekoa da **denda txikiei laguntzea, hutsik dauden lokalak aktibatzea eta jarduera erakarriko duten ekitaldiak sortzea**



Gure kaleak lehenetsiz

Erdigunea oinezkoentzat egiten jarraitzeak, **udalerrira hobeto lotu eta oztopoak murriztu ditu**, oinezkoentzako ibilbide erosagoak, seguruagoak eta aktiboagoak sortuz. Ildo beretik, Amorebieta-Etxanoko herritarrek ibilgailuek okupatutako espazioei lekua irabazten jarraitu nahi dute, oinezkoentzako eredu irisgarriago baten alde eginez, non elkarguneak ugarituko diren eta merkataritza-nodo berriak sortuko diren.

Kultura eta kirol jarduera berriei ostatu emateko gune biziak

Elkar topatzeko, sortzeko eta parte hartzeko gune berriak

Amorebieta-Etxanoko kulturaren eta kirolaren etorkizuna ez da soilik jardueren eskaintza zabaltzea, baizik eta jarduera hori gertatzen den espazioak birpentsatzea. Zornotza Aretoa bezalako ekipamenduek edo erabileran anitzeko espazio berriek, hala nola Urgozok, **leku irekiagoak, malguagoak eta egunerokoagoak bihur ditzakete, urte osoan zehar aisialdia, sorkuntza, kirola, topaketa eta parte-hartzea eskeintzeko gai direnak.**

Komunitate-bizitza bere indargune nagusietako bat den udalerrri batean, kultura- eta kirol-espazioak harreman-azpiegitura bihur daitezke: **gazteak, familiak, elkarteak, artistak, kirolariak eta herritarrak nahasteko, gauza berriak probatzeko eta komunitatea eraikitzeko lekuak sortuz.** Aukera ona da erabileran itxiak edo mugatuak dituzten eraikinetatik espazio bizi, hibrido eta irisgarrietara igarotzea.



Herritarrek proposatutako kontzeptuaren irudikapen bisuala

Zornotza Aretoa eguneroko kultura-babesleku gisa birdiseinatzea

Zornotza Aretoak aukera ematen du kultura-espazio irekiago, egunerokoago eta malguago gisa proiektatzeko, erreferentziatzeko kultura-ekipamendu gisa duen balioa mantenduz baina haren gaitasunak eta erabilerak handituz. Aukera ez da soilik eraikin bat berritzea, baizik eta **herritarrak programazio formaletik haratago egoteko, topatzeko eta parte hartzeko leku bihurtzea.**

Inkestatutako pertsonen* hobekuntzak proposatzen dituzte **erosotasuna indartzeko, azpiegitura eguneratzeko eta programazioaren kalitatea eta aniztasuna handitzeko**

*2025eko azarotik 2026ko otsailera bitartean egindako "Ametsetatik herrira" inkestan jasotako datuen arabera.


Barneko industria-espazioak berraktibatuz, kirol-, kultura- eta gazte-zentro gisa

Amorebieta-Etxanok dauden espazioak (industria-nabeak, gutxiegi erabiltako eraikinak) aprobeitza ditzake **esperimentatzeko, biltzeko eta komunitatea eraikitzeko, bertan espazio eta ekipamendu berriak sortuz.**

Hub indoor bat bezala balio dezake, barne-espazio bat, sortzen ari diren kultura- eta kirol-diziplinekin esperimentatzeko (skate, parkour, musika, dantza edo arte urbanoa), baita egungo jarduera informaletarako azpiegitura dinamiko eta hornitu bat eskaintzeko ere. Gakoa da **espazio malgu bat diseinatzea, adin eta parte hartzeko modu desberdinak erabiltzeko gai izango dena.**



Erreferentziatzeko proiektua → Game Streetmekka Viborg (Danimarka)



Game Streetmekka Viborg (Danimarka)

Inkestan parte hartu duten 30 urtetik beherakoek* **barruko egonaldi gehiago eskatzen dituzte, beste kirol-modalitate ez-formal batzuk egin ahal izateko**

Esku-hartze mota horri esker, gazteen errotzea indartu eta udalerrira belaunaldi berrientzako eskaintza erakargarria duen leku gisa koka daiteke.

Hub mota hau **bizitza komunitarioaren nodo berri bat** bihur daiteke: non gazteek eta belaunaldien arteko loturek presentzia izango duten eta kirola eta kultura modu askotariko eta jarraituan ager daitezkeen.



Erreferentziatzeko proiektua → Game Streetmekka Viborg (Danimarka)

Amorebieta-Etxanoko kirol plana

Amorebieta-Etxanoko Kirol Plana anbizio argi batekin jaio zen: **gure udalerrira herri aktiboago, osasungarriago eta kohesionatuago bat bihurtzea, non kirola herritar guztien ongizatearen eta bizi-kalitatearen zerbitzura dagoen tresna bat den.** Gure ustez, jarduera fisikoa ez da kirol-jarduera bat soilik, komunitate gisa batzen gaituzten loturak partekatzeko, elkarrekin bizitzeko eta sendotzeko espazio bat ere bada.

Hiru ardatz nagusi ditu: **Mugitu**, pertsona guztiei kirolerako sarbidea errazteko; **Bizi**, belaunaldi, auzo, klub eta kolektiboen arteko partaidetza, lankidetzak eta topaketa sustatzeko; eta **Zaindu**, bizi-ohitura osasungarriak bultzatzeko eta kirol-instalazio moderno, irisgarri eta ondo zainduak bermatzeko.



Horretan ari gara!

Ez gara hutsetik abiatzen; jarduera estrategikoak bultzatzen ari dira, hala nola Larreako gimnasioa handitzea, padel-pistak berritzea, kirol-instalazioen prebentziozko mantentze-planaren hasiera, **Txolon** lehenengoko prozesu batean birmoldatzea eta **Urgozo Kiroldegia** inauguratzea.

Jarduera hauek Amorebieta-Etxanoko **egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko hurbilagoa, inklusiboagoa eta prestatuagoa dagoen kirol eredu baten oinarriak ezarriko dituzte.**

Amorebieta-Etxano etorkizuneko herria

Egungo zerumugatik haratago: epe luzerako begirada


Hiri-hazkunde ordenatu, iraunkor eta ekitatibo baterantz goaz, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-iraunkortasuneko irizpideak integratuz, **etxebizitza- eta enplegu-aukerak bermatuz** eta udalerrian bizi diren **pertsona guztien bizi-kalitatea sustatuz**.

Epe luzerako begirada Amorebieta-Etxanorako, **hurbilagokoa, kohesionatua eta bizimodu berrietarako prestatua**.



Etxebizitza eredu berriak, eskuragarritasuna, errotzea eta komunitatea sortzeko

Amorebieta-Etxanok eskema tradizionaletik haratago doazen **etxebizitza-eredu berriak** azter ditzake, **etxebizitza eskuragarria izango den eta komunitatea eta sustraitzea sortuko duen** udalerrri baterantz aurrera eginez. Halaber, **erreferentziatzko udalerrri gisa koka daiteke inkluzio eta ongizatean zentratuta dauden espazio publikoetan, bizikidetza eta gizarte-kohesioa indartuz**.



PGOU → Legarrobi



Gure adinekoen zaintzarako eta bizitza aktiborako egoitza-komunitate irekia

Amorebieta-Etxanok bizitza luzeari, zahartzte aktiboari eta zaintza komunitarioari lotutako **etxebizitza-eredu berriak** azter ditzake, autonomia, bizitza soziala eta komunitateari egiten dion ekarpen aktiboa sustatzen duten auzoak diseinatzuz, etxebizitza, **zaintza eta komunitatea uztartzen dituzten irtenbideak sortuz**.



Erreferentziatzko proiektua → Hogeweyk (Herbehereak)



Udalerriko konexio-puntu gisa integratutako mugikortasun-nodoak

Amorebieta-Etxanok hainbat mugikortasun-irtenbide izatetik sistema **integratu, ikusgarri eta erabilerraza** eraikitsera igaro daiteke, Bizkaibizi, auzotaxi eta bizikleta-aparkalekuak leku berean integratuz eta **mugikortasun-nodoak sortuz** hirigunean, geltokian, kiroldegian, auzoetan...

- Etxebizitza eta komunitate eredu berriak
- Nortasun-ikur diren auzoak
- Mugikortasun konektatua eta irisgarria

Galdetutakoen % **84,6*** **udalerrira errotuta** sentitzen da, eta % **82k** dio harro dagoela **Amorebieta-Etxanon** bizitzeaz

*2026ko urtarilean kaleratutako "Ametsetatik herrira" inkestan jasotako datuen arabera.



Hiri-espazio berriak erabilpen gabeko eremuetan deszentralizazio-mekanismo gisa

Amorebieta-Etxanok **hiri-jarduerako gune berri** bihurtzeko gutxi erabiltzen diren eremu periferikoak, espazio publiko erakargarri berriak diseinatzuz, hainbat jardueratarako egokitzeko gai diren espazio ireki eta malguak diseinatzuz, bizikidetza eta **auzo-bizitza indartuko duten espazio komunitarioak sortuz**, espazio horiek udalerrirako oinezkoen eta bizikleten sarearekin lotuz.



Erreferentziatzko proiektua → Park am Gleisdreieck (Berlin)



Udalaren eta herritarren arteko lotura etengabeko hartu-emanean, konfiantza, segurtasun-sentsazioa eta pertinentzia-sentimendua hobetzeko

Amorebieta-Etxanok herritarrei **udalerriri buruz erabakitzeko** partaidetza-mekanismoak sar ditzake, herritarrek **identifikatutako intzidentzien berri emateko eta hiri-ingurunean hobekuntzak proposatzeko** aukera emango dien aplikazio mugikor bat garatuz. Ekarpeneak geolokalizatu egiten dira eta udal-zerbitzuetara bidaltzen dira, kudeaketa, lehenespena eta jarraipena erraztuz. Sistemak **administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea ahalbidetzen du**, espazio publikoaren kudeaketa gardenagoa eta eraginkorragoa eginez, eta, aldi berean, tokiko bizitzan duten inplikazioa indartzen du eta errotze handiagoa sortzen du.



“Bertokoak berton” — auzoetan oinarritzko zerbitzuak bideratu

Amorebieta-Etxanok eredu hori erabil dezake **jarduera txikiagoa duten auzoetan bizitza komunitarioa indartzeko**, zentroaren mendekotasuna murriztuz sozializazio-leku bakar gisa, eta horrek aukera ematen du hiri-jarduerara deszentralizatzeko eta **udalerriri barruan eguneroko bizitzako puntu berriak sortzeko**.



Erreferentziatzko proiektua → Rural Youth Co-working (Galizia)



Landaguneko lan- eta bizikidetza-guneen sarea

Amorebieta-Etxanok **lana, komunitatea eta lurraldea lotuko dituen espazio-sare bat** gara dezake, eremu periferikoetan edo landa-inguruneetan coworking-espazio txikiak sortuz, eraikinak berrerabiliz eta **komunitatea sortuko duten eta talentu-ihesa saihestuko duten** jarduerak, tailerrak eta prestakuntza programatzuz; bitartean, tokiko ekintzailetza sustatzen da Amorebieta-Etxano lurralde egokitu eta erakargarritzat hartuz.